

2016ko abuztuaren 22an BAOean argitaratuta

Bermeoko Udala

Ibilgailuak garajeetara espaloien bidez sartzeko kalea erreserbatzeko lizentzia arautzen duen udal araudia.

Bermeoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2016ko otsailaren 25ean egindako lan saioan, Ibilgailuak garajeetara espaloien bidez sartzeko kalea erreserbatzeko lizentzia arautzen duen udal araudiaren aldaketa hasieran onartzeko eta jende aurrean aurkezteko erabakia hartu zuen.

Izapide hori eginda, dagokion iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2016ko apirilaren 18ko 72. zenbakia) argitaratuta, jende aurrean 30 eguneko epean egonda, ez da inolako alegaziorik egin.

Hori ikusita, eta apirilaren 2ko Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. Artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz, aipatutako Ordenantza behin betikoz onartutzat ematen da eta beraz argitaratu egingo da.

Ibilgailuak garajeetara espaloien bidez sartzeko kalea erreserbatzeko lizentzia arautzen duen udal araudia.

XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.

1. Ordenantza honen xedea Ibilgailuak garajeetara espaloien bidez sartzeko kalea gordetzeko lizentzia emateko baldintzak eta prozedurak ezartzea eta horren araubide juridikoa arautzea da.

2. artikulua.

1. Udal lizentziaren menpe geratuko da mota guztietako finketarako ibilgailuen sarrera, horretarako, espaloiak edo bestelako jabari eta erabilera publikoko ondasunak zeharkatu behar baldin badira.

Udalak espaloien erabilera bereziaren aprobeixamenduari dagokion lizentzia emango du ibilgailuak sartu ahal izateko eraikinetan, lokaletan, orubeetan eta lurretan, haien ondoan espazio publikoa erreserbatuz.

2. Bide publikoa erreserbatzeko edo gordetzeko lizentzia prekarioan ematen da, jabetza eskubidea izan ezik, eta beste batzuen kalte barik, eta edozein unetan bota daiteke atzera, interes publikoko arrazoiek horrela gomendatzen dutenean, eta Ordenantza honen 21. artikuluan aipatzen diren balizkoetan.

3. artikulua.

1. Erreserbak hartzen duen kalea, espaloi aurrekoa izango da, aurreko artikulua ezarritako lokal edo tokira sarbide normala den zatian.

2. Erreserbatzen den esparruak, espaloien karelean neurturik, luzerarik txikiena, hiru metrokoa izango du, eta gehiena, 6 metrokoa izan daiteke, daukan benetako luzeran sartzen diren beste zatikirekin, edota bat gehiago, zatikirik soberan badago.

3. Dena den, neurria, bere hedapen guztian, kasu bakoitzean, dagoen orube edo lokalera sartzeko gunearen luzera erabilgarriari dagokiona izango da.

4. Eragin guztietarako, fiskaletarako barru, erreserbaren luzera Udalak finkatuko du, lizentzia emateko orduan.

4. artikulua.

1. Debehatuta geratzen da ibilgailuak, arrapalen, behin behineko edo zirkunstantziatzko instalakuntzen, hau da, elementu mugikorren, zurezko edo metalezko piezen, adreiluen, harearen, zintarren gutxitzearen. bitartez izatea.

2. Udalak, horretarako aurretik baimena eskatzen bada, zintarra gutxitzea exekutatzeko baimena eman ahal izango du, eta kontzesiodunak bere kontura egin beharko du, eta material, forma, neurri eta gainontzeko ezaugarriei dagokienean Udal teknikarien bitartez adierazten direnei lotu beharko da.

Gutxitutako zintarra, kontzesiodunak berriro jarri beharko du lehengotan, lokala ibilgailuak gordetzeko erabiltzen ez den momentuan, edo gune publikoaren erreserbaren kontzesioak indarra galtzen duen une berean. Lehengotan berriro jartzea kontzesiodunaren kontura joango da, eta horrek ez dio Udalari inolako konpentsaziorik, ezta indemnizaziorik eskatuko.

Kontzesiodunak zintarra kentzen ez badu, Udalak egingo du haren ordeztu eta haren kontura egingo da, dagokion espedientearen tramitazioa egin ondoren.

5. artikulua.

1. Erreserba, 2. artikuluan adierazten diren ibilgailuak gordetzeko edo garaje legezt erabiltzen diren eraikinetarako, lokaletarako, orubeetarako eta lur-sailetarako emango dira, Alde Zaharretik kanpoko gunean.

2. Lizentzia indarrean dagoen bitartean okupaturik eta erabilia egon beharko du, lokalak gutxienez bi ibilgailu sartzeko lekua, edo 40 m²ko izan beharko ditu, Udaltzaingoaren eta udal zerbitzu teknikoaren iritziz espaloien, lorategi guneen, aparkaleku publikoaren, merkataritza guneen. ohiko erabilera publikoan eraginik ez badute.

3. Aparkatzea debehatuta dagoen bideetan ibia baimendu ahal izango da ibilgailu plaza bakarra jasotzen duen lokalerako, Udaltzaingoaren eta udal zerbitzu teknikoaren iritziz, espaloien, lorategi guneen, aparkaleku publikoaren, merkataritza guneen. ohiko erabilera publikoan eraginik ez badu.

4. Udalak bide publikoa erreserbatzeko lizentzia ukatu egin dezake, ibilgailuen joan-etorrien edo hirigintza alorreko ezaugarri berezien ondorioz hori komenigarria den finketan.

6. artikulua.

Salbuespen moduan, Udalak, baimena emango du, legezt ezarritako jarduera bateko ibilgailuak sartzeko, erreserba hori beharrezko edo komenigarri egiten danean.

7. artikulua.

Beharrezkoa denean, lizentziarik gabeko lokal batean, zamaketa egitea, une jakin baterako bakarrik eman ahal izango da lizentzia Udalaren aldetik.

LIZENTZIAK OROKORREAN.

8. artikulua.

Jabetza eskubidea kenduta eta inoren kalte barik, diskrezionalki emango ditu Udalak, espaloitik ibilgailuak igarotzeko eta kalea erreserbatzeko lizentziak, Udaltzainburuaren txostena ikusi ondoren, ibilkuntzearen beharrianak kontutan izanik.

Baimenak ez du inolako eskubide subjektiborik sortzen, eta titularrari agindeia egin ahal izango zaio, edozein unetan, bere kontura kendu eta espaloia eta zintarria lehen bezala utz ditzan.

9. artikulua.

Erreserba lizentziak, iraunkorrak edo behin behinekoak izan daitezke.

10. artikulua.

Izaera iraunkorra dutenetan, ibilgailuen sarrera-irteera eskubidea, eguneko hogeita lau orduetarako izango da, eta euren aurrean, emandako esparruan ezin izango da beste ibilgailurik kokatu, jabearena ere ez.

11. artikulua.

Aldi baterakoan, zamaketarako bakarrik erabili izango da lizentzia, jarduera garatzen den esparru aurrean, berak daukan lan ordutegian. Kasu berezietan, eta justifikatu ondoren, aldi baterako erreserbak baimendu daitezke, zortzi ordutik gorakoak ezin izango direlarik izan.

Aurreko atalean ezarritakoak, ez du galaraziko, erreserban, eta ibilkuntzaren beharrian handia edo premia larriarengatik, une batean ibilgailuaren bat bertan gelditzea.

12. artikulua.

Izaera iraunkorreko esparru publikoa gordetzeko lizentzia, 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten garaje edo lokalentzat emango da.

Beharrezkoa izango da garaje jarduera lizentzia izapidetzea Bide publikoaren erreserbako lizentziaren aurretik, lokalak 100 m²tik gorako azalera edo 5 ibilgailu baino gehiago aparkatzeko lekua duenean.

LIZENTZIAREN TITULARRAK.

13. artikulua.

1. Araudi honen 2. artikulua azaltzen dituen lokaletako jabeak edo errentariak baino ezin izango dira erreserba lizentzien eskatzaile eta titular izan.

2. Industri izaerarik ez duten taldeko garajeei dagokionez, eskaria, une horretan txandakako administrazioa daukanak edo Jabe Elkarteko Lehendakariak sinatuko du, kontzesioa, Jabe Elkartea horren izenean emango delarik.

3. Lizentziaren jabeak izango du erantzukizun bakarra, erreserba bidez lokalera sartzeko bidea erabiltzen duten ibilgailuen jabeek betetzen ez dituzten beharrezkoak.

14. artikulua.

1. Bide publikoaren erreserbako lizentziaren titulartasun aldaketa batera eskatu beharko dute titularrak eta behin behineko hartzaileak, 6. artikuluan adierazten den dokumentazioa aurkeztuz, beren beregi horretatik salbuetsita geratzen ez bada.

2. Aldaketa hori, lizentzia emateko orduan indarrean zeuden baldintzek bere horretan jarraitzen dutela eta eragindako aldaketa jardueraren titularrari baino ez dagokiola egiaztatu ondoren baimenduko da.

LIZENTZIA EMATEKO PROZEDURA.

15. artikulua.

1. Eskari idatzian, Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 69. artikulua ezarritako baldintzez gain, agertu beharko da:

a) Eskatzen den lizentzia mota -aldi baterakoa edo iraunkorra- nahiz eta Udalak, kasu bakoitzean egokiena deritzona emango duen.

b) Toki horretan egongo den ibilgailu kopurua.

2. Eskariarekin, ondorengo agiriak erantsiko dira:

a) Toki horren kokagune planoak, 1:500 eskalara.

b) Tokiaren planoak 1:100 eskalara, azalera, eta ibilgailuak izango dituen gunean adieraziz.

c) Udal zerga guztiak ordainduta dituela adieraziz, Udal Kontu-hartzaitza Sailak emandako egiaztagiria.

d) Jarduera zabaltzeko udal lizentziaren fotokopia, aldi baterako lizentzia eskatzen danean bakarrik.

16. artikulua.

Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio igarotzeko lizentzia emateko eskumena, baina gobernu batzak eskumen hori beste udal organo batzuei eskuordetu diezaieke, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.2. artikuluan emandako eskuduntzei kalterik egin barik

17. artikulua.

1. Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera izapidetuko dira lizentzia emateko prozedurak

2. Bi hilabeteko epea dago lizentzia emateko edo ukatzeko prozedura ebazteko, eskabidea izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartu denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarota beren beregiko ebazpena jakinarazten ez bada, eskabidea administrazio isilunez onartu ez dela ondoriozta dezake interesatuak, edo interesatuek, administrazioak beren beregi eman dezakeen ebazpenari kalterik egin gabe

3. Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea eten egin daiteke 30/1992 Legeko 42.5. artikuluan ezarritako kasuetan.

TITULARRAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

18. artikulua.

Lizentziaren titularrak honako hauek bete behar ditu:

- a) Ordenantza fiskalean ezarritako urteko tasa ordaintzea.
- b) Erreserbaren seinaleztapenak dakartzan gastuak ordaintzea.
- c) Lurzoruaren kontserbazioa eta garbitasuna.
- d) Ibia margotzea edo seinaleztatzea, udal zerbitzu teknikoek adierazitakoari jarraituz.
- e) Egoera onean mantentzea beheragunea eta espaloitari dagokion zatia, igartzeko toki osoan, eta berehala egitea mantentze-lanak, betiere udalak hala egitea agintzen badu zertarako-eta pertsoneri eta ondasunei kalterik ez eragiteko.
- f) Bere kontura, espaloiarene zorua berriztatzea, Udalak guztiz eskatuta aurkitzen duenean.
- g) Plakak, behar den moduan jagotea, beti ere Udalak ezarritako leku jakinean egon beharko direla kontuan izanda. Ezabatu, askatu, edo galduko balira plakak, udal zerbitzu teknikoek, berriak eskatu beharko zaizkie, ordaindu ondoren emango zaizkielarik.
- h) Seinaleztapen bertikala ordeztzea edo aldatzea horretarako eskaera egiten denean.
- i) Bere kontura kentzea zintarriko beheragunea, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, igartzeko lizentzia ezeztatzen denean.
- j) Ibia zedarrizteko elementuak jartzea edo kentzea horretarako eskaera egiten denean, edo sortutako gastuak ordaintzea baldin eta udal zerbitzuek kentzen badituzte.
- k) Bide publikoaren erreserba lizentzia emateko jardueraren inguruabarren edozein aldaketaren berri ematea idatziz udalari.

19. artikulua.

Bide publikoaren erreserba lizentziaren titularrak erantzun egin beharko die administrazioari edo hirugarrenei eragindako edozein kalterengatik baldin eta titularraren finkan sartzeko zintarriko beheragunea edo espaloiko zatia edo herri jabariko eta erabilerako gunea behar bezala ez mantentzearen ondoriozkoa bada, baita seinaleak eta bestelako zedarrizpen-elementuak ez mantentzearen ondoriozkoak ere.

20. artikulua.

Hona hemen ibi lizentziaren titularraren eskubideak:

- a) Lizentziari dagokion finkan sartzeta eta irtetea baimendutako orduen barruan, baina eskubide hori eten edo mugatu egin daiteke baldin eta ekitaldiak, jaiak eta merkatu edo azoka tradizionalak ospatzen badira eta herri lanak edo pribatuak edo larrialdiko edo programaturiko obrak egiten badira, udalak baimenduak, baina horrek ez du ekarriko, inola ere, ordaindutako tasen edo ordaindu beharreko tasen zati proportzionala itzultzeko eskubiderik.
- b) Lizentzia baimenean finkaturiko terminoetan eta, hala denean, xedaturiko epean erabiltzea.
- c) Haren titularitateko sarbidea erabiltzeko dituen eskubideak ez eragozteko edo galarazteko, bertan ibilgailuak gelditzeagatik edo aparkatzeagatik, edo edozein objektu mota egoteagatik.
- d) Udal zerbitzu eskudunek baimendutako sarbidea bermatzea, mugikortasunaren arloko araudian ezarritako terminoetan. Babes horrek ez ditu bere baitan bilduko seinaleztapen egokia ez duten ibilgailuak, honako ordenantza honek dakartzan arauekin bat etorritik.

LIZENTZIA EZEZTATZEA.

21. artikulua.

1. Administrazio eskudunak, noiznahi, ezeztatu egin ditzake lizentziak interes publikoagatik baldin eta lehenago onetsitako baldintza orokorrekin bateraezinak badira, herri jabarirako kalteak badakartzate, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea galarazten badute edo erabilera orokorrerako kaltegarriak badira.

2. Era berean, ezeztatu ahal izango dira lizentziak emateko inguruabarrak desagertzen direnean edo bestelako inguruabarrak agertzen direnean, hain zuzen horrelakoak izan balira lizentzia ukatzeko zio izango ziratekeenak.

3. Ibilgailuak igarotzeko Tokiko Herri Jabariaren Erabilera Pribatibo edo Aprobetxamendu Bereziarengatik Tasa bete ez dela egiaztatzen denean ere ezeztatuko dira.

4. Halaber, ordenantza honen xede den lizentzia ezeztatzeko zergatiak hauek izango dira:

- Zorua edo erreserbako seinaleztapen-plakak egoera onean ez mantentzea.

- Erreserbako seinaleztapen-plaketan ezarritako datuak manipulatzea edo aldatzea.

- Ibilgailuen pasagunea ez erabiltzea edo behar bezala ez erabiltzea.

- Udalak baimendutakoa baino herri jabariko gune handiagoa erabiltzea edo baliatzea, aprobetxamenduaren ezaugarriak aldatzea edo aprobetxamenduan baimenik gabeko edozein aldarazpen sartzea.

- Udalaren ikuskaritza lanak ukatzea edo eragozte.

5. Lizentzia ezeztatzeak berekin ekarriko du titularrak seinaleak nahitaez kendu beharra, zintarriko beheragunea kentzea, espaloia hasierako egoeran utzita betiere, eta, hala denean, ibia erabiltzearen ondorioz gerta litezkeen kalteak konpontzea. Hartara, titularraren pentzura izango dira erabilera horren ondoriozko gastuak, salbu eta lizentzia bidegabe eman bada edo irizpide berrietan oinarritzen bada lizentzia emateko zioa.

6. Lizentzia ezeztatzen bada titularrari edo nahitaez erantzun beharra dutenei dagozkien kausengatik, ezin izango du titularrak beste ibi lizentziarik eskuratu sei hilabeteko epean, lizentziari dagokion seinaleztapena kentzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

22. artikulua.

1. Baldin eta lizentziapekoak ez badu betetzen 21.5. artikuluan xedaturikoa horretarako emandako epearen barruan, udalak arestian aipaturiko jarduketak burutu ahal izango ditu betearazpen subsidiarioan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 93, 94, 96 eta 98. artikuluetan xedatu denarekin bat etorritik.

2. Horri kalterik egin gabe, udalak, lizentziaren titularrak nahitaez egin beharreko egintzak betearazteko, behartzeko isunak ezar ditzake. Hartara, behin eta berriz jarri ahal izango ditu isunak, agindutakoa betetzeko nahikoa izan daitezen.

SEINALEZTAPENA.

23. artikulua.

1. Erreserba barruko esparruaren aurrean dauden espaloietako karelak, bai erabilpen iraunkor eta baita, aldi baterakoetan, udal zerbitzu teknikoek agindutakoari jarraituz margotu beharko dira.

2. Eraikuntzaren fatxadan eta ibilgailuak sartzeko erreserba lizentziadun lokalaren sarbidean, plaka bi joango dira, honako azalpen hauekin:

a) Izaera iraunkorreko lizentziak, plakaren goiko aldean, «Ibilgailuen igarobidea - Paso de Vehículos», ekarriko du, erdigunean, debekatuta aparkatzearen ikurra, eta behealdean, udal lizentziaren zenbakia.

b) Aldi baterako lizentzietan, plakak aurrekoen ezaugarri berberak izango ditu, baina bere behealdean, udal lizentzia zenbakiaren ondoan, debekuaren ordutegia jarriko da.

24. artikulua.

Salbuespen moduan, eta Udalak, egokitzat hartzen duenean, eremu publikoaren erreserba lizentziaren bidez babestutako lekuan debekatuta dagoela aparkatzea adierazten duen trafikoko diskoak jartzeko baimena emango du.

Diskoak jartzea eta baita espaloietako karelak margotzea ere, erreserba jabearen kontura joango dira.

ESPALOIAREN ERABILERA ETA OKUPAZIOA OBRAK DIRELA ETA.

25. artikulua.

Konponketa obregatik edo etxe berrien eraikuntza lanengatik, furgonetak edo kamioek espaloitik igaro beharrik balute, lurzoru gainean, material egokidun plataforma babesle bat jarri beharko da.

Ibilgailuon igarobidea, dagokion baimena Udalean eskaturik, ordaindu ondoren eta jarritako denboran egingo da.

Ondore horietarako, obraren iraupena hiru hilabetetik gorakoa bada, udalaren erabakia aurkakoa ez bada, dagoen lurzoria aprobeitza daiteke, baina, jendeak erabiltzeko moduan egoteko, eta obrak amaitu ondoren, kale-ertzea eta karela konpontzeko baldintza betez.

Dana dala, berdin da, obraren iraupena zein dan, obrak amaitu ondoren, eraikitzaileak, Udal Zerbitzu Teknikoak ezarritako eran, bere karelaekin espaloien lurzoria berreraiki edo konpondu beharko du.

Udalak, kalea hartzeko lizentzia eman ahal izango du babeseko hesiengatik, beharrezkoak direnean. Lizentziaren jabeak, horretarako, Udal Zerbitzu Teknikoak ezarritako baldintzak jarraitu, eta egokiak diren tasa eta ordainkizunak bete beharko ditu.

ARAU HAUSTEEN ARAUBIDEA.

26. artikulua.

Hutsegite arin legez, honako hauek hartuko dira:

a) Fatxadako seinalea osorik ez mantentzea edo/eta ezabatuta edo era desegokian izatea plakak.

- b) Urtea igaro ondoren, karelik ez margotzea, edo udal teknikariek ezarritako eran barik beste batean, edota beste epe batean margotzea.
- c) Erreserbara zuzendutako eremuan bere ibilgailua aparkatzea.
- d) Erreserba emanda edo eman barik egon arren, esparru hori hartzeko oztopoak jartzea.
- e) Merkataritza ordutegitik kanpo aldi baterako lizentzia erabiltzea.
- f) Emandako ordutegitik kanpo zamaketa egitea, eta Udalaren baimen barik.
- g) Erreserbaren edota kale-ertzaren erabilpen desegokia egitea.
- h) Arautegi honekin zerikusia duen, eta Alkatetzeak hutsegite arin legez ulertzen duen beste edozein.

27. artikulua.

Hutsegite larritzat honako hauek hartuko dira:

- a) Urtebetean zehar, hutsegile arinak berriro egitea.
- b) Udalak ezarritako sasoian eta eran, espaloia ez konpontzea.
- c) Jarraiko urte bitan, karelik ez margotzea.
- d) Udalari 14. artikuluan ezarritako datuak ez jakinaraztea.
- e) Lizentziaren eskarian emandako datuak gezurrezkoak izatea.
- f) Lokalak, beharrezkoak diren baino ibilgailu gutxiagorekin erabiltzea.
- g) Kareletan, arrapala mugikorrek, beharrezkoa baino denbora gehiagotan izatea.
- h) Jabeak azaldutako helburuetarako lokalik ez erabiltzea.
- i) 20. artikulua azaltzen duen plataformarik ez erabiltzea.
- j) Arautegi honekin zerikusia duen, eta Alkatetzeak hutsegite larri legez ulertzen duen beste edozein, dagokion espedientea zabaldu ondoren.

28. artikulua.

Oso hutsegite larritzat honako hauek hartuko dira:

- a) Urtebetean zehar, hutsegite larriak berriro egitea.
- b) Udal baimen barik, karelak txikitzea.
- c) Karelak gaintzeko arrapala finkoak jartzea.
- d) Udal baimen barik trafiko diskoak jartzea.
- e) Araudi honetako 20.3 artikulua ezarritako eran espaloirik ez konpontzea.
- f) Arautegi honekin zerikusia duen, eta alkatetzeak hutsegite larri legez ulertzen duen beste edozein, dagokion espedientea zabaldu ondoren.

29. artikulua.

Araudi honek dioana ez betetzea, Otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoaren arabera tramitatuko da eta printzipio hauekin bat etorri beharko da: 30/1992 Legean edo hori ordezkatzan duten legedian ezarritakoekin, lege horren nahiz lege hori garatuko duten arauen eta egongo diren zigor-erregimenetan ezarritako arlokako arauen printzipioekin.

30. artikulua.

1. Araudi honek dioana ez betetzea, 7/1985eko apirilaren 2ko Legearen XI. Izenburuaren arabera zigortuko da, ezarritako mugekin, dagokion espediente zabalduta ondoren, lege haustearen larritasuna izan beharko delarik kontutan zigorra jartzeko orduan.
2. Alkatetza izango da zehapenak ezartzeko eskumena daukan organoa.
3. Bermeoko Udaltzaingoaren Buruzagitzak egingo du espedienteen instrukzioa.
4. Udal Arau honi buruzko arau-haustek, zehapenen isunen zenbatekoarekin batera eranskin modura agertzen den zigor zerrendaren arabera zehaztuko dira.

31. artikulua.

1. Lege-urratze arinetan honako zigor hauek jarri daitezke: 901 eurora arteko isuna.
2. Zigor hauek dagozkie lege-urratze larriei: 901 eurotik 1.502 eurora bitarteko isuna.
3. Lege-urratze oso Larriei zigor hauek dagozkie: 1.503 eurotik 30.051 eurora bitarteko isuna. Udal lizentziak ezereztea edo indarrrik gabe geratzea eragingo dute

ERANSKINA.

ARAU HAUSTEEN TAULA.

Ibilgailuak espaloien bidez sartzeko kalea

erreserbatzeko udal araudia .

(art prf kalf kop kod).

Fatxadako seinalea osorik ez mantentzea. Plakak 21 a A 300 1.

Fatxadako seinalea era desegokiak edukitzea. Plakak. a A 300 2.

Urtea igaro ondoren, karelik ez margotzea. b A 300 3.

Urtea igaro ondoren, Udalak ezarritako epe batean ez margotzea b A 300 4.

Erreserbara zuzendutako eremuan bere ibilgailua aparkatzea. c A 300 5.

Erreserba emanda edo eman barik, esparru hori hartzeko oztupoak jartzea d A 300 6.

Merkataritza ordutegitik kanpo lizentzia aldi baterako erabiltzea. e A 300 7.

Emandako ordutegitik kanpo zamaketak egitea, eta Udalaren baimen barik f A 300 8.

Erreserbaren edo kale ertzearen erabilpen desegokia egitea. g A 300 9.

Alkatetzaren iritziz arautegi honetaz zerikusia duen beste edozein hutsegite arin. H A 300 10.

Urtebetean zehar, hutsegile arinak berriro egitea. 22 a L 901 11.

Udalak ezarritako sasoian eta eran, espaloia ez konpontzea. B L 901 12.

Jarraiko urte bitan, karelik ez margotzea. c L 901 13.

Udalari 14. artikuluan ezarritako datuak ez jakinaraztea. d L 901 14.

Lizentziaren eskarian emandako datuak gezurrezkoak izatea. e L 901 15.

Lokalak beharrezko baino ibilgailu gutxiagoz erabiltzea. f L 901 16.

Kareletan, beharrezkoa baino denbora gehiagotan izatea arrapala mugikorrek g L 901 17.

Jabeak azaldutako helburuetarako lokalik ez erabiltzea. h L 901 18.

i) 20. artikulua azaltzen duan plataformarik ez erabiltzea. I L 901 19.

j) Alkatetzaren iritziz arautegi honetaz zerikusia duen beste edozein hutsegite arin j L 901 20.

a) Urtebetean zehar, hutsegite larriak berriro egitea. 23 a OL 1505 21.

b) Udal baimen barik, karelak txikitzea. b OL 1505 22.

c) Karelak gaintzeko arrapala finkoak jartzea. c OL 1505 23.

d) Udal baimen barik trafiko diskoak jartzea. d OL 1505 24.

e) Araudi honetako 20.3 artikulua ezarritako eran espaloirik ez konpontzea. e OL 1505 25.

f) Alkatetzaren iritziz arautegi honetaz zerikusia duen beste edozein hutsegite larri f OL 1505 26.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Udalak, zerbitzu publiko edo herriaren interesarengatik, ibilgailuen aparkaleku aldi batekoa edo iraunkorra erreserbatzeko lizentziak eman ditzake, erreserba horien helburua, lokal edo garajeetarako igarobidea erraztea balitz.

XEDAPEN IRAGANKORRAK.

Atean edo fatxadan margotuta dituzten edo jarrita dauzkaten ibilgailuen gordeleku edo garajeetako jabeek, kendu egin beharko dituzte seinale edo ohar horiek, Arautegi hau onartzen den egunetik hasita bi hilabeteko epe barruan, Udaletik araudi honetan ezarritakoaren arabera dagokion lizentzia eskatu daitekeelarik.

Bermeon, 2016ko uztailaren 28an.-Alkatea.